

Idazketa korrika?

Idazlanean trebatzeko ariketa laburrak dira baina usu errepikatuak. Goizero edo astean bizpahiru aldiz, hitz edo erranaldi zenbaiten idaztea eskatzen zaie ikasleei.

Askotariko kontsignak erabiltzen dira, luzetasun ezberdineko testuak idazteko. Kontsigna arbelean idazten da eta eragozpenak, gako-hitzak, laguntzak taldean xerkatu ondoren (edo ez) idazten hasten dira 6-7 minutuz. Nahi dutenek taldeari irakurtzen ahal diote. **Lehen idatzaldian** egiten da, salbu zailtasun orokor bat agertzen baldin bada. Hara **ideia zenbait**, gaika sailkaturik.



Bere buruaz mintzatzeko

- Ene ikasgairik maiteena ikastolan hau da...baita,...dudalako...
- Ikusi dudan filmik hoberena hau da...baita,...dudalako...
- Ene urtarorik maiteena hau da...baita,...dudalako...
- Gehienik beldurtzen (izitzen) nauena hau da...baita,...dudalako...
- Gehienik tristatzen nauena hau da...baita,...dudalako...
- Udazkenean/ neguan/ udaberrian/ udan, gehienik maite dudana hau da...
- Gehienik maitatu dudan oparia hau da...baita,...dudalako...
- Amesten dudan oparirik ederrena hau da..baita,...dudalako...
- Ene jakirik (plater) maiteena hau da..baita,...dudalako...
- Ene kirolrik maiteena...
- Ene libururik maiteena...
- Ene animaliarik maiteena...
- Ene eskolatik landako aktibitaterik maiteena...
- Gehienik pozten nauena...
- Gehienik irri eginarazten nauena...
- Ikastolan maite dudana...
- Handituta ... (ofizio bat) izan nahi nuke
- ...(zerbaitetan) trebea naizela iruditzen zait...naizelako...baitut...
- "Arras gustukoak" ditudan gauzen zerrenda:...
- Ttipia nintzelarik...

Zerrenden egiten ikasteko

- Ene zorroan dudana
- Ene ganberan dena
- Usain txarra duena/ usain ona duena
- Gorria dena/ urdina ...
- Hitz irrigarrien zerrenda
- Irri eginarazten naudenaren zerrenda
- Beldurtzen naudenaren zerrenda
- Zuk asmatu duzun ogitarteko berri baten osagaiak
- Olentzero izateko lan eskaintza: beharrezko 5 kalitate zerrenda itzazu.
- Ene Urteberriko deliberoak aurten.

Argumentatzen ikasteko

- Zure irakaslea konbentzi ezazu biharko etxeko-lanik ez ematea.
- Entsea zaitetz zure burasoen konbentzitzera zakur bat adoptatu behar duzuela (edo beste etxeko animalia bat: pottoka, gatu, ahuntz...)
- Zure burasoak konbentzi itzazu elefante bat adoptatu behar duzuela.
- Idazluma berezi baten saltzeko publizitate bat idatz ezazu.
- Zure ikastolaren saltzeko publizitate bat idatz ezazu.
- Zure burasoak konbentzitzera entsea zaitetz, ostiraletan usaian baino berantago ohera zaitetzkeela.
- Uniformea eskolan, alde ala kontra? Azaldu.
- Zer nahiago zenuke? Lagun anitzen ukaitea ala biziki adimentsua izatea?
Gela batean krokodilo batekin hetsirik izatea ala orroaz garrasika ari diren 30 ninirekin? Aktore famatu bat ala kantari ospetsu bat? Biziki aberatsa izan ala anitz lagun ukan? Izotz mokorrez betea den ur hormatuan bainatzea ala porru salda batean?

Deskribatzen ikasteko

- Zure ikasgelako ikasle baten potreta egizu (haren izenik erran gabe).

Deskriba ezazu...

- ...zure ikasgela
- ...zure logela
- ...arte obra hori
- ...irudimenezko lagun bat/ zure lagun hoberena
- ...oihanean bizi den irudimenezko munstro bat
- ...zure inauterirako mozerro maiteena
- ...leihotik ikusten duzuna
- ...zure oparirik maiteena
- ...zure etxetik ikastolarako bidea
- ...Zugarramurdiko Graxiana sorgina
- ...pertsonaia hori (afixatua)



Galdeen idazteko

- Olentzero topatzen duzu, zer galdaketa egingen zenioke?
- Mari Domingiri?
- Estralurtar bati?
- Pertsonaia historiko bati?
- Zure kirolari,... zure kantari maiteenari?

Errezeta baten edo agindu testu baten idazteko

- Azeria bezain abila bilakatzen zaituen saldaren errezeta
- Nola egin linterna bat kuia batekin
- Hara gehienik maite dudaren jokoaren araua
- Nola egin elur-panpina bat (elurra sekula ikusi ez duen haur bati esplikatu)